

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Lafitte, Gorostiaga, Lojendio, Villasante, Lekuona ta Oleaga euskaltzaiñak. Berriotxoa anaia, Zugasti, Arruza, Etxaniz, Loidi, San Martin ta Irigoyen urgazleak. Etxaide jauna gexorik dago eta ezta etorri. Mitxelena ta Arrue jaunak be ezin etorria adierazo dabe. Aita Larrañaga apezpiku jaunak be bai.

Gregorio Maidagan jaun urgazlea il da. Agertu bekie bere etxekoai gure atseka-bea.

Batzar-buruzagi jagon-saillekoaren buru-izendatzea urrengo batzarrerako itxi da. Gorostiaga eta Arruza jaunak Oleaga-ri egin deutsiezan karta bi irakurri dira. Gorostiaga jaunak diño zarrena dan ezker berari ematen dautsala botoa buru izateko. Arruza be beraren alde dago. Besteen itza artu bedi.

Jose Amilibia Bergara-koak idatzi dauen karta bat irakurri da. Diño Bilbon umeentzat euskal-eskola bat zabaldu gura dauela eta bear direan aletinak egiteko asmoa daukala. Euskaltzaindiari bere itzala eskatuten dautso. Erantzun bekie Euskaltzaindia prest daukala aal dauen laguntasun guztia emoteko eta pozez beterik ikusten dauela asmoa.

Irigoyen jaunak Labayen-ek idatzi dautsan karta bat irakurri dau eta bertan iru milla peseta eskeintzen dautsoz Euskaltzaindiari aurreko batzarrean berba egin zanez Lizardi-ren gorazarrez poesia-sariketea egiteko. Urrengo oiñarri oneik ontzat artu dira:

**“Lizardi” Jose Maria Agirre-ren gorazarrez euskaltzaindiak antolatzen duen poesia-sariketa.**

Oiñarriak urrengo auek izango dira:

1. Iru sari emango dira: 1. Bi milla pesetakoa. 2. Zazpireun eta berrogetaamarrekoa. 3. Berreun eta berrogetaamarrekoa.

2. Bialtzen diran poesia-lanak nai dan bezelako luzeera ta gaia izan dezakete eta bertsoan euskeraz egiñak izan bear dute.

3. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6-Bilbao) 1961 Maiatzaren 15-a baiño leen, makiñaz idatzita. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.

4. Poesia-sariketa erabakiko duen batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du.

Krutwig jaunaren lan bat irakurri da errien euskal izenez. Baita Miarrizetik idatzitako bere karta bat be.

Arruza jaunak diño ia batzar-buruzagiaren kontua erabagi bitartean Euskaltzaindiaren etxean bildu leitekezan beñipeñeko. Baietz esan da.

Aita Villasante-k Krutwig jaunak berari idatzi dautsan beste karta bat irakurri dau.

Aita Villasante egiten ari dan gramatika-lanaz berba egin da.

*Amabost egun Urgainen* Loidi-ren euskerazko novela katalanera itzulita argitaratu da eta egilleak ale bat eskeiñi dautso Euskaltzaindiari. Zorion diola.

Irigoyen jaunak diño Aprillaren 23-an egingo dala Betelun Nafarroako bertsolarien bigarren txapelketako lenengo saioa eta igaz legez Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatu dabela. Ontzat artzen da.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.